

EUSKARA HEDABIDEETAN

Euskarazko hedabideak eta euskararen presentzia hedabideetan

Liburuaren aurkezpena:

Liburu hau 2008ko martxoan EAEko Administrazioak argitaratu zuen, eta barruan hainbat idazlek beraien iritzia ematen dituzte euskarari hedabideetan ematen zaion tratuari buruz. Azken helburua euskarazko hedabideen eta beren kontsumitzaile potentzialen arteko harremana aztertzea da, hedabideen munduan euskararen presentzia behar bestekoa lortzeko. Liburuan hamazazpi txostengilek hamabost galdera edo aztergaireren inguruan egindako gogoeta biltzen da eta, horrekin batera, baita “Sintesi Txostena” ere, non galdera bakoitzaren inguruan ageri diren adostasunak eta desadostasunak laburtzen diren.

Liburuaren aztergaiak asko dira, denak gaur egun garrantzia handia dutenak, esate baterako gazteen ezaugarri eta beharrak, ezarri beharreko lehentasunak, Interneten garrantzia eta beste hainbat.

Liburua sarean aurkitu ahal da, hain zuzen ere [“www.euskadi.net”](http://www.euskadi.net) web-orrialdean, baina ez da hain erraza bilatzea: web-orrialde horren bilatzailean “Euskara hedabideetan jaitsi” ipini behar da, eta soilik hori jarriz gero agertuko zaigu liburua deskargatzeko esteka (pdf formatuan).

Adituak, laguntza handi bat:

Lehen esan dudan bezala, lan honetan hamazazpi adituk edo txostengilek beraien iritzia ematen dituzte hedabideetan euskarari ematen zaion tratuari buruz. Denek galdera bakoitzean dituzten ideiak aurkezten dituzte, batzuk egokiak eta beste batzuk ez hainbeste, baina, azken finean, denak lagungarriak. Ideia asko direnez, garrantzitsuenak aipatuko ditut, bakoitzaren inguruko argudioak eta azalpenak nabarmentzen saiatuko naiz.

Gazteek lehentasuna behar dute?

Lehenik eta behin, gazteen eta lehentasunaren gaia aztertuko dut. Gai horrek gaur egun garrantzia handia bereganatu du, gazteak oso garrantzitsuak egin direlako teknologia berrien sorreraren ondorioz. Xede-talde honek asko erabiltzen ditu teknologia berriak eta horregatik kontsumitzaile potentzial garrantzitsuak bilakatu dira. Hori dela medio, ahalegin asko egin dira gazteei zuzendutako produktuak ekoizteko, haiek direlako etorkizuneko kontsumitzaileak.

Aditu gehienek gazteei zuzendutako produktuen lehentasuna aldarrikatzen dute. Esate baterako, Iban Arantzabalek esaten du 16-34 urteen arteko adin-tartea lehenetsi behar dela, etorkizunean euskarazko hedabideak kontsumituko dituztelako. Beste aditu batzuek Arantzabal bezala pentsatzen dute gutxi gorabehera, adibidez, Inazio Arregik, zeinek esaten baitu 45 urtetik beherako pertsonak lehenetsi behar direla. Hemen ez dute txostengile biak gauza berak esaten, batek 16-34 tartea lehenesten duelako, eta bestea 45 urtetik beherako tartea. Hala ere, iritzi nahiko antzekoak dituzte, nahiz eta adin tartetean ez egon guztiz ados.

Badaude beste autore batzuk kontrako ideiak dituztenak, edo ez guztiz kontrakoak, baina gutxienez adin tarte hau lehenesten ez dutenak. Honen adibide garbia Unai Agirre eta Jose Inazio Basterretxea dira. Lehenak esaten du ezin dela kontsumitzaile talderik hobetsi, komunikabide bakoitza aztertu behar delako. Bigarrenak antzeko iritzia du, lehentasunak finkatzeko faktore asko kontuan izan behar direlako, eta ez bakarrik adina.

Badaude beste kasu ezohiko batzuk, adibidez, Allande Boutinek esaten du gazteak lehenetsi behar direla, baina horretaz gain, jubilatuei begira egunkari bat egin behar dela aipatzen du.

Zein eratako hedabideak lehenetsi behar dira?

Gaur egun hedabide guztiak kontsumitzen dira, batzuk besteak baino gehiago, baina, funtsean denak oso garrantzitsuak suertatzen dira. Teknologia berrien agerpenaren ondorioz, hedabide batzuek garrantzi handiagoa bereganatu dute besteen kaltean. Horren adibidea Internet eta telebista dira, gehien erabiltzen diren komunikabideak. Komunikabide tradizionalak albora gelditzen hasi dira, eta garrantzia galduz joan dira azken urteotan.

Gai honi buruz, liburuko txostengileek iritzi asko dituzte, eta orain batzuk aipatuko ditut.

Batzuek, adierazten dute ez dela hedabide bakar bat lehenetsi behar, eta horren adibidea Mikel Irizar eta Unai Agirre dira. Beste batzuek, ostera, eraginkortasunaren aldeko apustua egiten dute, lehentasuna hedabide eraginkorretan kokatuz, Martxelo Otamendiren kasua da hori. Txostengile honek dioenez, epe

laburrean ezinbestekoak eta ia ezinbestekoak diren hedabideak lehenetsi behar dira. Amaitzeko, ikus-entzunezko hedabideen alde jartzen diren adituak aipatuko ditut, Ibai Arantzabal eta Bingen Zupiria esaterako. Lehenak esaten du hedabide masiboak eta etorkizunekoak lehentasuna behar dutela, hau da, Internet eta telebista, eta bigarrenak, aldiz, lehentasuna telebistan soilik kokatzen du, bere ustez euskara zabaltzeko tresnarik egokiena delako.

Minoritarioak diren aldizkariak arreta publikoa behar dute?

Liburu honen beste gai garrantzitsu bat minoritarioak diren aldizkarien inguruan doa. Eztabaida argia da: aldizkari hauek laguntza publikoa behar dute? Askok baietz esaten dute, baina beste batzuk guztiz kontra daude. Tirabira hau argitzeko liburuko txostengileen iritziak aurkeztuko eta alderatuko ditut.

Hainbat autorek laguntzen alde daude, haien ustez, aldizkari edo egunkari guztiek arreta publikoa behar dutelako. Iritzi hau duten txostengileen artean Unai Agirre, Kike Amonarriz daude. Lehenak, esaten du aldizkari hauek gai konkretuei buruz artikulu zehatzenak egiten dituztela eta horregatik laguntzak behar izaten dituztela. Bigarrenak, Agirrek bezala pentsatzen du, eta horregatik esaten du aldizkariak zein irrati eta telebista saioak arreta publikoa behar dutela.

Laguntza publikoen alde ez dauden autoreak Iban Arantzabal eta Inazio Arregi dira, baina bigarrenak salbuespen batzuekin. Arantzabalek dio aldizkari hauek ez dutela behar arreta publikorik, oso eraginkorrak ez direlako. Arregik, berriz, adierazten du aldizkari espezializatuek laguntzak behar dituztela, baina aldizkari minoritarioek, aldiz, ez dutela behar, oso gutxi saltzen direlako.

Zein da tokian tokiko prentsaren aukerarik egokiena epe erdira begira?

Badago beste eztabaida garrantzitsu bat liburu honetan: zein ote den tokian tokiko aukerarik eraginkorrena epe erdira begira. Hainbat aukera daude: egunkaria, astekaria, aldizkaria... Gai hau gaur egun oso garrantzitsua da, jakin nahi delako zer-nolako aukera erabili behar den tokian tokiko prentsa eraginkorra bihurtzeko. Egunkariak gertutasuna eta gaurkotetasuna eskain dezake, aldizkariak, berriz, gertuko informazio espezializatua. Beraz, liburuko adituen iritziak azalduko ditut gai hau argitzeko asmoz.

Unai Agirrek esaten du aldizkariak nahiz egunkariak eraginkorrak direla, ondo eginez gero. Baina beste batzuek, ordea, ez dute berdin pentsatzen. Jose Inazio Basterretxearen aburuz, aldiz, astekaria eraginkorragoa da tokian tokiko prentsarako. Beste batek, Allande Boutinek, adierazten du aldizkariak eraginkorrenak direla gertuko informazio espezializatua ematen dutelako. Bestalde, Odile Kruzetak esaten du aukerarik egokiena egunkaria dela, baina soilik begietatik sartuko dena, infografia eta irudi asko dituena. Ikusten denez, gai honen inguruan hainbat iritzi daude, eta adostasuna lortzeko esfortzu handiak egin beharko lirateke.

Internet arreta berezia behar duen hedabidea da?

Seguruenik, liburu honen gairik garrantzitsuena da hau, Internet etorkizuneko hedabidea izango delako. Urte gutxi barru dena egingo da Internetaren bidez, eta horregatik euskarak ahalegin handiak egin behar izango ditu atzean geratu nahi ez bada. Hori dela eta, liburuko txostengileek emandako iritziak aipatuko ditut, gai honetaz gehiago jakiteko eta irtenbideak ezagutzeko.

Aditu gehienak Internetaren lehentasunaren alde daude, etorkizunean euskara zabaltzeko tresnarik egokiena delakoan. Iritzi honetakoak diren txostengile asko daude, baina bakarrik batzuk aipatuko ditut espazio faltagatik: Jose Inazio Basterretxea, Julian Beloki... Lehenengoak esaten du Internet lehentasuna behar duen medioa dela; bigarrenak argudiatzen du Internet hizkuntza bakarreko mundua ez dela esanez. Beraz, adierazten du euskarak ahalegin handiak egin behar dituela mundu horretan barneratzeke.

Baina, badaude iritzi ezberdinak duten autoreak ere. Gutxi batzuk dira, eta hauen adibide garbia Unai Agirre da, zeinek esaten du Internetek lehentasunik ez duela behar, arreta berezia baizik.

Argi ikusten da Internet lehenetsi behar dela etorkizunean gauza gehienak sarean gauzatuko direlako. Hortaz, ahalegin handiak egin behar dira euskara sarean barneratzeke.

Prentsa idatzizko produktua ez ote da astunegia eta ia ildo bakarrekoekin identifikatua?

Hauxe da prentsa idatziaren eztabaidarik garrantzitsuena. Euskaraz egindako produktu hauek askotan ez dira kontsumitzen askok astunegiak ikusten dituztelako, eta horrez gain, ildo bakar batekin identifikatzen ohi dira. Horren ondorioz, ahalegin asko egin behar dira auzi hau konpontzeko, prentsa arinagoa eta ildo ezberdinetakoa sustatuz.

Autoreek iritzi ezberdinak dituzte gai honi buruz, jarraian azalduko ditudanak. Nerea Azurmendik esaten du ea zergatik aukeratu behar den serioaren eta arinaren artean, biak garrantzitsuak direlako. Mikel Irizarrek, berriz, euskarak idatzian zailtasun gehien daukala adierazten du, eta ondo datorkiola formula arin eta erakargarriak lantzea. Beste motatako iritzi bat Martxelo Otamendik ematen du, zeinek esaten du betidanik

ezagutu den prentsa astuna izan dela, eta prentsa arina egiteko saioak egin direnean porrot egin dutela. Begi bistan dago prentsa idatzia asko aldatu behar dela, eraginkorragoa izan nahi badu.

Liburuan ateratako ondorioak:

Ondorio garbi bat dago: euskarazko hedabideen eta bere kontsumitzaileen arteko erlazioa aztertzea ezinbestekoa da, eskaintza hobetzeko eta eraginkorragoa izateko. Gainera, kontuan hartu behar da euskarak azken 20 urteetan 200.000 hitzun irabazi dituela, eta hitzun guztiak asetzeko, hedabideek produktu berriak egin behar dituzte.

Bestalde, argi dago interesa sortu behar dela euskarazko hedabideetan, etorkizunean ikusle eta irakurle gehiago bereganatzeko. Horretarako, hedabideek hainbat proiektu gauzatu dituzte. Proiektu horietako garrantzitsuenak multiplataforma da, hots, eduki bat ahalik eta euskarri gehiagotan zabaltzea.

Lehentasunen alorrean, argi dago gazteak lehenetsi behar direla, baina euskara asko hitz egiten dutenak baita ere. Hori lortzeko, ahalik eta proiektu gehien zabaldu behar dituzte.

Beste ondorio garrantzitsua prentsa idatzikoa da, arintasuna sustatu behar delako, gaur egungo prentsa idatzia oso astuna baita eta ia ildo bakarrekoa. Hori konponduz gero, euskarazko prentsa idatzia kalitatea irabaziko luke, gero eta kontsumitzaile gehiago bereganatuz. Gainera, orokorrean pentsatzen da doakotasunak ez diola kalte egiten prentsa idatziari, beraz, ez da deuseztatu behar.

Amaitzeko, Internetaren alorreko ondorioa azalduko dut: lehentasunarena. Ia aditu guztiek esaten dute lehentasuna behar duela etorkizuneko hedabidea izango delako. Hori dela eta, hainbat ahalegin egin behar dira euskara Interneten sustatzeko.

Amaierako gogoeta:

Liburu honen lana amaitzeko, amaierako gogoeta bat egingo dut "Euskara Hedabideetan" aztertzeko. Nire ustez, argitalpen hau ezinbestekoa da hedabideen eta kontsumitzaileen arteko erlazioa ikertzeko, horrekin, produktuak hobetzea lortzen delako.

Liburu honek lotura asko du gure ikasgaiarekin, guk ikasten duguna euskara ondo erabiltzea delako. Beraz, uste dut liburu honek ekarpen asko eskaini ahal dizkigula, klaseko lanak egiteko oso lagungarria suertatu ahal delako. Amaitzeko, esan behar dut nahiko interesgarria dela pertsona orokorrean, hori dela medio, edonori gomendatzen diot, nahiz eta askoz erabilgarriagoa izan adituentzat.